



Beñat GAZTELUMENDI

Bertsolaria

Aldaketena

Barraskiloak ginen azkarago bizi ginen garaietan. Bizkarrean kabitzen zitzaigun habia. Ginen guztia. Arropak, pare bat liburu, argazkiren bat eta hortzetako pasta eta zepiloa. Kito.

Gaueko autobusetan zeharkatzen genuen herri-tik herrirako distantzia; edozein ohetan hartzen gintuen loak eta, oherik ezean, edozein banku edo belazerekin ere konforme ginen. Edonon baikeneukan lagunak bat, edonoiz, ostua eskaintzeko prest.

Pixkana pisuz pilatu zitzaizkigun bizkarrak. Ugari-ritu egin ziren arropak, gizen- du liburuak, eta garbitzekoei sendagaiak erantzi genizkien. Xaboa eta hortzetako pasta soilik zirenei betaurrekoak batu zizkien gure heldu-aro miop-ak, edo lentilak, likidoak, tenperatura aldaketa ñimiñoenak pitzatzen digun azalarentzako uken-dua, noizbehinkako ajeentzako medizina.

Gero eta espazio handi-agoa hartzen zuen ginenak.

Motxila bat ginen aurrean, gela bat ondoren, eta etxe bat azkenean. Interneteko atarietan eta higiezin agentzien erakusleihoetan erre genituen begiak gure patriken itogin eta guzti abaro emango zigun zerbaiten bila. Eta behin aurkitutakoan, han joango ginen etxea ezagutera.

Sartu eta etxe hutsaren hormetan oihartzun egingo zuen gure urratsek, aurretik bertan bizi izan zirenen usai- nen aztarnak atzemango genituen libxibaren perfumea- ren arrakal-etan. Gure ondasun apur- rak kokatu arren erdi hutsik segituko zuen etxeak. Objektuz objektu zabalduko



Gizonezko bat, hauteskundeetako kartel bati begira. Marisol RAMIREZ | FOKU

genuen ginen hura. Azkenean, gure gorputza- ren usainak etxeko hor- ma, armairu eta baxerara itsatsita gera- tuko ziren.

Sekula beteko ez ge- nuela uste genuen leku hartan gainezka egingo genuen. Eta aldian-al- dian, berriz miatuko ge- nituen higiezin- en agen- tzien erakusleihoak, sekula ordaindu ezingo genituzkeen etxeen ira- garki-ak ia ukitzera hel- duko ziren gure begiak. Zer da, bada, biolentzia, gose denari sekula aho- ratuko ez duena parean jartzea ez bada.

Halako batean, ozta-oz- ta ordaintzen genuen alokairua garestitu zi- gutelako, edo ustekabe- ko mahukaren batekin topo egin genuelako, etx- ez aldatzea erabaki- ko genuen. Eta etxe al- daketa- z etxe aldaketa, mudant- zaz mudantza, are pisutsu- ago egingo zitzaigun ginen- a; objek- tu gehi- ago pilatu- ko ge- nituen gure barraskilo- oskolaren barruan. Etxe batetik besterako tran- sizioan, hilabeteetan aterpetu gintuen etxearen gain- beheraren lekuko izango ginen: hezet- asun arrastoak sa- baian, sartu ginen egunean egin arren ordura arte ezkutuan egon zen marka armairu ertz batean, maratila askatuak ateetan eta tantaka odolusten diren kanilak. Da- torrenaren distiraren parean, are itzalago uztera goazen oskola.

Ez dakit zergatik den, baina gauza bera gertatzen zait hauteskundeetan hautagaien kartelak iristen zaizkidanean. Etxe hau zein agentziarena den ez dakit oraindik, ordea. •